

Ordiziako Udala

2018IOSB0006

Ordizian, **2018ko ekainaren 28an**, Udaletxe honetako batzar aretoan bildu zen UDALEKO OSOKO BILKURA, ohiko deialdian, honakoak bertaratu zirelarik:

BERTARATUAK:

LEHENDAKARIA:

José Miguel Santamaría Ezeiza jauna

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Joseba Aranburu Ganzarain	EAJ/PNV
Bittor Bolinaga Alzelai	EAJ/PNV
Jose Ignacio Iturrioz Gotor	EAJ/PNV
Arantxa Fernandez Alvaredo	EAJ/PNV
Igor Eguren Izagirre	Ordiziako E.H. Bildu
Belen Maiza Urrestarazu	Ordiziako E.H. Bildu
Adur Ezenarro Agirre	Ordiziako E.H. Bildu
Izaro Intsausti Zinkunegi	Ordiziako E.H. Bildu
Jon Ander Caballero Zubelzu	Ordiziako E.H. Bildu
Miren Alazne Sukia Galparsoro	Ordizia Orain
M. Jesús Soto De Los Santos	Ordizia Orain
Iñaki Dubreuil Churruca	Euskal Sozialistak-Socialistas vascos

BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK:

IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta andrea

KONTU-HARTZAILEA:


Mikel Zubizarreta Elicegui jauna

BERTARATUTAKO BESTE BATZUK ETA EZIN ETORRIAK

EGUNEKO GAI-ORDENA

EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:

- 1.- 2018ko maiatzaren 31n egindako Osoko Bilkurako akta onartzea.
- 2.- Maiatzeko Alkatetzako dekretuen berri ematea.
- 3.- kontu-hartzaileak ekaineko kontratuen gainean egindako ingerak.
- 4.- Kontu-hartzaileak egindako txostenaren berri ematea, 2018ko aurrekontuaren hasierako onarpenari buruzkoa.
- 5.- EUSKARALDIA Udal barruan sustatzeko Erakunde-adierazpena.
- 6.- EH-BILDUK aurkeztutako mozioa, LGTBI pertsonen Askatasun Sexualaren Nazioarteko Egunari buruzkoa.
- 7.- Palestinako herriak Gazako zerrendan jasandako sarraskiaren aurrean, Ordizia Orainek aurkeztutako mozioa.
- 8.- "GARBIGUNE" 32 sail berria sortzeari eta "Suhiltzaileen Parkea" HIE 27ari buruzko Planeamenduko Arau Subsidiarioen Aldaketa puntualaren behin betiko onarpena.



Ordiziako Udala

2018IOSB0006

9.- “San José” adinekoen egoitza zerbitzuari atxikitako lurrak eta eraikina Gipuzkoako aldundiari dohainik lagatzea.

10.- Kudeaketa materialaren ardurari buruzko hitzarmena, Ordiziakoko udalaren eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren artekoa.

11.- Kontratazio-mahai iraunkorraren eraketa.

12.- Bide publikoan ibiak arautzen dituen ordenantzaren hasierako onarpena.

PRESAZKO BIDETIK SARTUTAKO GAIK:

Ordizia Orainek errefuxiatuei buruz aurkeztutako mozioa.

GALDE-ESKAERETAN AZTERTUTAKO GAIK

.- Bozeramaileen Batzordearen bitartez adierazpen bat egitearen proposamena, non “manada” izenez ezagunak diren kideak aske uzteko erabakia salatzekoa.


.- Plaza eta orokorrean egindako ekitaldietan musikaren bolumena mugatzea.


GORABEHERAK

ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 19:00etan

AMAIERA ORDUA: 20:35ean





Lehendakariak hasiera eman dio bilkurari, gai-zerrendako lehen puntuaren berri emanez.

1.- 2018ko maiatzaren 31ko ohiko bilkurako akta onartzea.

Proposamena

2018ko maiatzaren 31ko ohiko bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Ezenarro jaunak esan du aktaren euskarazko bertsioan, 66. orrian, 14. puntuan “eskariak eta galderak”, udal aldizkariari dagokionez, bere interbentzioa ez dela bere osotasunean jaso.

Jakinarazten du, aktan jasotakoaz gain, esan zuela udal gobernuak alderdi politikoei eskatzen diela karaktere kopurua 1.600etik gora ez izateko, baina udal gobernuak bera dela muga hori betetzen ez duena.

Bolinaga jaunak esan du aktaren gaztelaniazko bertsioan, 62. orrian, aktan jasotakoaz gain jakinarazi zuela EH-BILDUK eta O.ORAINek proposatutako zuzenketak José Ignacio Iturriozekin landu izan balira, aurrekontuak lehenago onartu ahal izango zirela.

Idazkariak adierazitako zuzenketak egin ditu.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Hortaz, adierazitako zuzenketekin, Lehendakari jaunak akta aho batez onartutzat eman du.



Jarraian, Lehendakari jaunak hurrengo puntuaren berri eman du.

2.- Maiatzeko Alkatetzako dekretuen berri ematea

Eztabaida


Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Maiza andereak hainbat ostalaritza establezimenduren (taberna eta pubak) Ikuskaritza eta kontrolaren gaineko hainbat dekreturi buruzko informazioa eskatzen du.

Alkate jaunak erantzuten dio indarrean dagoen araudira egokitzeko hilabeteko epe eman dela.

Udaleko Osoko Bilkura jakinaren gainean dago.





Jarraian, Lehendakari jaunak hurrengo puntuaren berri eman du.


3.- kontu-hartzaileak ekaineko kontratuen gainean egindako ingerak.

KONTU-HARTZAILEAREN INGEREN TXOSTENA (06/2018)

Ordizia, 2018ko ekainaren 22a

Idazkaritza sailetik honako kontratu hauek epez kanpo daudela jakinarazi diote Kontu-hartzaileari:

Sozietatearen izena	Kontratuaren xedea	Kontratua	Betearazte epea	Luzapenak	Kontratuaren prezioa	2017an gastatuta
Gesmunicipal	Nahitaezko diru-bilketa	03/11/2003	03/11/2007	---	Aldakorra	48.557,78
Juan M. Garmendia Amundarain	Kultur Etxeko atezaina	15/04/1986	Mugagabea	Urtez urteko luzapena	Zenbatekoa 2016an: hileroko 2.948,84 + BEZ	43.560,24
Landarri S.L.	Hilerriko zerbitzua	10/03/2005	10 urte 2015/03/10	Dekretu bidezko luzapena esleipen berria egin arte Epemuga: 2016/03/12	Gehieneko prezioa 18.000 euro + BEZ	34.901,11
Eulen Sociosanitarios	Etxez etxeko laguntza zerbitzua	24/12/2010	Gehienez 5 urte 2015/12/24	Urtez urteko luzapena kontratu berria egin arte	Tarifen araberakoa	110.015,03
Lorraz Elkartea. Arantxa Zabaleta Imaz	Arrisku egoeran dauden adingabeko eta gazteekin eremu irekian Gizarte-hezkuntzako esku-hartzearen zerbitzu publikoa	27/04/2012	Gehienez 4 urte 27/04/2016	Urtez urteko luzapena kontratu berria egin arte	Kontratuaren prezioa 60.000 euro BEZ barne Prezioa 2016an: 65.529 euro BEZ barne	76.450,50
Erro Koop. Elkartea Leire Andia	D'elikatuz zentroaren kudeaketa	24/07/2012	Gehienez 4 urte 27/04/2016		Kontratuaren prezioa 90.000 euro BEZ barne	103.993,41
INDOK	Munigexen kudeaketa	Kontratu gabe	Urtekoa		Prezioa 2016an: 12.196,80 euro BEZ barne	13.053,11
LAIA S.COOP.	Agenda 21	01/04/2013	01/04/2015	Kontratu gabe	Kontratuaren prezioa 17.061 euro BEZ barne	20.757,46
Ainara Ormaetxea	Immigrazio Zerbitzua	01/01/2016			21.773,95 euro BEZ	25.993,39



Harto					barne	
Alotza Hurtzaindegia Guraso Elkartea	Udal Haur- eskolaren kudeaketa zerbitzua .	01/09/2009 Nota: El 21 de junio de 2018 se ha publicado en el BOG la nueva adjudicación	Gehienez 6 urte 2009/09/01		Kontratua begiratu. Tarifak+sub+U dal zerbitzu kontratua 33.500 eurokoa	494.000,00

a) Aplikagarria zaizkion arauak:

a.1) 9/2017 Kontratu Publikoen Legea, azaroaren 8koa.

“29. artikulua. Kontratuen iraupen-epea eta kontratuen exekuzioa.”

1. Sektore publikoko kontratuen **iraunaldia zehazterakoan, kontuan hartu beharko dira prestazioak zer-nolakoak diren eta finantzaketa nolakoa izango den, eta aldian-aldian prestazio horiek lehia bidez eman beharra ere bai**, kontratu jakin batzuei aplikatzekoak diren arau bereziak eragotzi gabe.

Bigarren xedapen gehigarria. Tokierakundeetarako kontratazio-arau bereziak.

1. **Alkateen eta toki-erakundeetako presidenteen eskumeneoak izango dira, kontratazio-organo diren neurrian**, kontratu hauek: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, zerbitzu publikoen kudeaketarako kontratuak, administrazio-kontratu bereziak eta kontratu pribatuak, **baldin eta beren zenbatekoa ez bada aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa**, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino handiagoa; orobat izango dira haien eskumeneo mota horietako kontratuak, zenbait urterako direnean, betiere lau urte baino gehiago irauten ez badute eta urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino handiagoa ere.

“35. artikulua. Kontratuaren gutxieneko edukia:

1. *Sektore publikoko ente, organismo eta erakundeek egiten dituzten kontratuek aipamen hauek jaso behar dituzte nahitaez, pleguetan azaltzen ez badira:*

l) Hala egokituz gero, prezioa zein aurrekontu-kredituren edo kontabilitate-programa edo -errubrikaren kontura ordainduko den.


a.2) 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.

“ 67. artikulua. Legezketasunaren kontrola.”

1.- Kontuhartze-eginkizunaren helburua, haren legezketasun kontrolaren ikuspegitik, toki erakundeen eta beraien organismo autonomoen egintza guztiak, beti ere haiek eskubide eta betebeharrak ekonomikoak edo gastuak aintzatestea eta likidatzea eragiten dutenean, beraietatik sortzen diren sarrera eta ordainketak eta administratutako ondasuntza publikoen bilketa, inbertsio eta, oro har, aplikazioa fiskalizatzea da, kudeaketa kasuan kasuko aplikatu beharreko xedapenen arabera izan dadin.

2.- Eginkizun horren erabilerak honako hauek eskuhartuko ditu:

a) Eskubideak edo betebeharrak ekonomikoak sortzea edo baloreen fondoak mugitzea eragin dezaketen egintza, agiri edo espediente guztien kontuhartze kritikoa edo aurretiazkoa.



b) **Ordainketa-aginduaren erazko kontuhartzea.**

c) **Ordainketaren kontuhartze materiala.** Udalbatzaren erabaki batengatik kontrol hori laginketa bidez baimentzen denean izan ezik, kontuhartzailearen sinadura foru arau honetako 57. artikuluan aurreikusitako fondoan erabiltzenerako amankomunatuari erantsiko zaie.

“70. artikulua. Ingerak.”

1.- Kontuhartze-eginkizuna erabiltzean, organo kontuhartzailea aztergai diren egintzen, agirien edo espedienteen edukiarekin edo itxurarekin ados ez badago, bere ingerak idatziz azaldu beharko ditu erabakia edo ebazpena hartu baino lehen.

3.- Ingera gastuen erabilpenari, betebeharren aintzatespenari edo ordainketa-aginduari badagokio, espedientearen izapidetza etengo da harik eta hura ebazten den arte, beti ere honelakoetan gertatzen denean:

c) Espedientean **funtssezko beharkizun** edo izapideak alde batetara utzi direnean.

4.- Ingerak ukitzen duen organoa berarekin ados ez dagoenean, udalburuak ebatzi beharko du eztabaida, eta beraren ebazpena betearazibeharrekoa izango da. Ahalmen hau ezin da eskuordetu.

a.3) 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoa.

Bigarren artikuluan Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina aldatzen du eta honela geratu da aldatuta martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki-ogasanak arautzen dituen Legearen testu bategina:

“213. artikulua. Barneko kontrola.”

Toki-entitateetako organo kontu-hartzaileek ekitaldi bakoitzean garatutako kontrol horien emaitzak jasoko dituen laburpen-txosten bat igorriko diote, urtero, Estatuko Administrazioaren Kontu-Hartzaitza Nagusiari, aurreko lerrokadan adierazitako arauetan xedatutako epea eta edukia errespetatuz.»

“218. artikulua. Desadostasunen ebazpenari buruzko txostenak.”


1. Kontu-hartzaitzako organoak txostena helaraziko dio osoko bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez toki-entitateko lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Txosten horrek funtzio ikuskatzaileari dagozkion alderdiei eta betekizunei bakarrik erantzun die, ikuskatutako jarduketaren aukera edo komenigarritasunari dagozkion gaiak gaineratu gabe.

Atal honetan jasotzen denak puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.

Korporazioko lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango du osoko bilkuran.

2. Aurrekoari kalterik egin gabe, eta desadostasunak daudenean, toki-entitateko lehendakariak kontrol-organoko eskudunari aurkeztu ahal izango dio bere ebazpena, finantza-tutoretza esleitua duen administrazioaren gaia delako, hain zuzen.

3. Kontu-hartzaitzako organoak txosten bat helaraziko dio urtero Kontu Auzitegiari, toki-entitateko lehendakariak eta korporazioaren osoko bilkurak adierazitako eragozpenen kontra hartutako ebazpen



Ordiziako Udala

2018IOSB0006

eta hitzarmen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Dokumentazio horrez gain, tokiko korporazioaren justifikazio-txostenak aurkeztu beharko dira, hala badagokio.»

Hile honetan irregulartasun egoeran dauden kontratuen ondorengo fakturak iritsi dira:

ERREPARO FAKTURAK		EKAINA
HORNITZAILEA	FAKTURA ZENBAKIA	KOPURUA
J.M.GARMENDIA AMUNDARAIN	2018/06	3.701,25
ALOTZA HAURTZAINDEGIA	20	38.000,00
LAIA, S.COOP.	18/22	1492,83
ERRO KOOP. ELKARTEA	006U/18	7640,25
ERRO KOOP. ELKARTEA	007U/18	4550,00
GESMUNPAL, S.A.	2018/147	1.379,35
GESMUNPAL, S.A.	2018/04	179,91
EULEN SERV.SOCIOSAN., S.A.	3538506	5.053,00
ORDIZIA GARBIKETAK L, S.L.	37	286,48
LANDARRI, S.L.U.	1800318	641,74
LANDARRI, S.L.U.	1800319	401,07
LANDARRI, S.L.U.	1800347	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1800348	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1800369	401,07
LANDARRI, S.L.U.	1800370	80,08
	TOTAL	64.448,77

ONDORIOAK:

a) Zerrendatutako kontratu guztiak irregulartasun egoeran daudelarik, lehenbailehen eguneratu behar dira

b) Zerrendatutako kontratuen fakturen ordainketen izapidetza etengo da, Alkateak ebatzi arte. Kontu-hartzaileak txostena helaraziko dio Osoko Bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez alkateak hartutako ebazpen guztien inguruan eta **puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.**

Ordiziako Kontu-hartzailea.- Miguel Zubizarreta Elicegui


2018/0654. DEKRETUA

HONAKO HAU IKUSITA:

- Kontu-hartzaileak 2018ko ekainaren 22an egindako 06/2018 txostena, indarrean ez dauden kontratuei dagokien zenbait fakturei ingera adierazten diena.

- Zerrendan dauden fakturak, epea amaitu ostean indarrean ez dauden eta luzapen epea ere agortuta duten zerbitzu-kontratuei dagozkie.

- Gaur egun dagoen lan-pilaketak kontratazioan egunean egotea eragozten du: Araudi berrien ugaritzeak, administrazio elektronikoaren ezarpenak gardentasun irizpideen baitan administrazioak



Ordiziako Udala

2018IOSB0006

betebehar jakin batzuk izateak espediente guztiak zorrotasun handiagoarekin bideratzera eta beste erakunde eta administrazio batzuei gai askoren inguruko informazioa helaraztera garamatza.

- Hala eta guztiz ere zehaztutako kontratuak eguneratzen eta arautzen ahalegintzen ari gara eta lehenbailehen eguneratu ahal izateko dagozkien teknikariek pleguak prestatzeko eta plangintza egiteko bilerak egiten ari gara.

- Plangintza hori emaitzak ematen hasi da.

- Hala ere eta kontuan izanda zerbitzuak ematen ari direla horietako asko beharrezkoak edo ezinbestekoak direlako zerbitzuen gastua ordaintzea egokitzen da.

Horregatik guztiagatik:

HONAKO HAU ERABAKI DUT:

* Jarraian zehazten diren fakturak ordaintzeko agindua ematea eta gobernu taldeak kontratuak eguneratzeko konpromisoa hartzea eta lan hau lehenestea.

ERREPAROA: FAKTURAK

EKAINA


HORNITZAILEA Proveedor	FAKTURA ZKIA Nº Factura	ZENBATEKOA Importe
J.M.GARMENDIA AMUNDARAIN	2018/06	3.701,25
ALOTZA HAURTZAINDEGIA	20	38.000,00
LAIA, S.COOP.	18/22	1.492,83
ERRO KOOP. ELKARTEA	006U/18	7.640,25
ERRO KOOP. ELKARTEA	007U/18	4.550,00
GESMUNPAL, S.A.	2018/147	1.379,35
GESMUNPAL, S.A.	2018/04	179,91
EULEN SERV. SOCIOSAN. S.A.	3538506	5.053,00
ORDIZIA GARBIKETAK L, S.L.	37	286,48
LANDARRI, S.L.U.	1800318	641,74
LANDARRI, S.L.U.	1800319	401,07
LANDARRI, S.L.U.	1800347	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1800348	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1800369	401,07
LANDARRI, S.L.U.	1800370	80,08
	GUZTIZKOA	64.448,77

* Dekretu hau doakionari jakinaraztea. * *Notifíquese el presente Decreto al interesado.*
ALKATEAK / EL ALCALDE,

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jaunak kontratuen erregularizazioa nola lantzen ari den azaldu du.



Sukia andereak ALOTZA HAURTZAINDEGIarekin dagoen haur eskolako zerbitzuaren kontratuari buruz galdetzen du.

Alkate jaunak erantzuten dio ekainaren 10ean kontratu hori erregularizatu zela.

Udaleko Osoko Bilkura jakinaren gainean dago.



Jarraian, Lehendakari jaunak hurrengo puntuaren berri eman du.

4.- Kontu-hartzaileak egindako txostenaren berri ematea, 2018ko aurrekontuaren hasierako onarpenari buruzkoa.

Ordizian 2018ko ekainaren 28an

BEHIN BEHINEKO IZAERAREKIN ONARTUA DAGOEN 2018.URTEKO AURREKONTU OROKORRAREN EGONKORTASUNARI BURUZKO TXOSTENA

A) APLIKAGARRIAK ZAIZKION ARAUAK:

Hemen aplikagarriak diren arauak honako hauek dira:

2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.


1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.

Diputatuen Kontseiluaren Akordioa, 2017ko azaroaren 7an, Jarraibidea onartzen duena finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan.

B) EGONKORTASUNAREN KALKULUA

EGONKORTASUNA (Ordiziako Udala bakarrik)

SARRERA	1.KAPITULUA	2.552.575,58
SARRERA	2.KAPITULUA	290.498,89
SARRERA	3.KAPITULUA	1.182.425,90
SARRERA	4.KAPITULUA	8.240.115,53
SARRERA	5.KAPITULUA	21.712,72
SARRERA	6.KAPITULUA	803.000,00
SARRERA	7.KAPITULUA	332.699,07
GASTUA	1.KAPITULUA	4.131.153,87
GASTUA	2.KAPITULUA	3.905.921,94
GASTUA	3.KAPITULUA	19.482,26



GASTUA	4.KAPITULUA	3.178.626,00
GASTUA	5.KAPITULUA	0,00
GASTUA	6.KAPITULUA	1.842.034,61
GASTUA	7.KAPITULUA	517.809,00
	ALDEA	-172.000,00

EGONKORTASUNA KONTOLIDAZIOAN

EGONKORTASUNA


GASTUAK	ORDIZIAKO UDALA KONTOLIDAZIOAREN DOIKETEKIN	HERRI ANTZOKIA KONTOLIDAZIOAREN DOIKETEKIN	SAN JOSE EGOITZA KONTOLIDAZIOAREN DOIKETEKIN	MAJORI KIROLDEGIA KONTOLIDAZIOAREN DOIKETEKIN	KONTOLIDATUA
1.KAPITULUA	4.131.153,87	113.831,09	806.820,00	216.637,34	5.268.442,30
2.KAPITULUA	3.905.921,94	94.685,22	2.099.023,00	1.378.834,02	7.478.464,18
3.KAPITULUA	19.482,26	50,00		3.500,00	23.032,26
4.KAPITULUA	1.909.832,99	1.000,00		73.006,41	1.983.839,40
5.KAPITULUA	0,00	0,00			0,00
6.KAPITULUA	1.842.034,61	20.000,00		467.000,00	2.329.034,61
7.KAPITULUA	30.809,00				30.809,00

SARRERAK	ORDIZIAKO UDALA KONTOLIDAZIOAREN DOIKETEKIN	HERRI ANTZOKIA KONTOLIDAZIOAREN DOIKETEKIN	SAN JOSE EGOITZA KONTOLIDAZIOAREN DOIKETEKIN	MAJORI KIROLDEGIA KONTOLIDAZIOAREN DOIKETEKIN	KONTOLIDATUA
1.KAPITULUA	2.552.575,58			0,00	2.552.575,58
2.KAPITULUA	290.498,88	57.700,00		0,00	348.198,88
3.KAPITULUA	1.182.425,90		927.600,00	913.349,07	3.023.374,97
4.KAPITULUA	8.240.115,53	8.000,00	1.588.595,00	13.000,00	9.849.710,53
5.KAPITULUA	21.712,72	11.500,00		18.150,00	51.362,72
6.KAPITULUA	803.000,00				803.000,00
7.KAPITULUA	332.699,07	0,00		0,00	332.699,07
ALDEA	1.583.793,01	-152.366,31	-389.648,00	-1.194.478,70	-152.700,00

C) ONDORIOAK

2017ko azaroaren 7ko, JarraibideaK erabaki du "Gipuzkoako toki entitateek jarraitu beharreko erregelak 2018ko aurrekontuak prestatu, onartu eta gauzatzeko, betiere aurrekontu egonkortasunari eta finantza iraunkortasunari buruzko arauditik eratorritako defizitari eta zor publikoari lotutako helburuak betetze aldera."

1.erregelak. Aurrekontu egonkortasunaren helburua dio Aurrekontu egonkortasunari dagokionez, 2018ko ekitaldian, 1/2013 Foru arauen 1.2.a) artikuluan aipatutako entitate guztiak bete beharreko helburua zero izango da defizita zero izatea".



“Apartatu honetan ezarritako helburua betetzen ez duten toki entitateek plan ekonomiko-finantzarioa egin beharko dute, gutxienez 2019-2021 epealdia aurreikusiko dueña, eta jarduneko urtean edota hurrengoan egoera zuzenduko dela bermatzen duena.

Gure kasuan egonkortasuna negatiboa ateratzen zaigu:-152.000€, beraz ez du betetzen egonkortasun erregela.

Beraz Plan Ekonomiko finantzario bat egitera behartuta egongo gara 2019ko martxoaren 31an betiere 2018ko likidazioan egonkortasuna eza mantentzen bada.

Mikel Zubizarreta.- Ordiziako Kontu-hartzailea

2018KO BEHIN BEHINEKO AURREKONTUAREN EGOERAREN AZALPENAK

1. EGONKORTASUNA EZ BETETZEA:

Arauren arabera, iraunkortasuna bete behar da, aurrekontua onartzerakoan ere. Gure kasuan ez da bete 172.000 euroko defizita dagoelako. Sarrerak (1etik 7ra) – Gastuak (1etik 7ra).

Nola zuzendu egoera:

Hau dela eta 2019ko martxoaren 31n Txosten ekonomiko finantzario bat onartu behar da 2018ko likidazioaren datuekin, beti ere data honetan egonkortasuna bete ez bada.

2. KREDITU GABEKO PARTIDAK.

Aurrekontua luzatua dela eta, partida batzuk kontratatuak daude, eta enmendakinen ondorioz, kreditu gabe daude.

Partidak hauek dira:

a) 1 227.99.912.00.0311 2018 MEJORA EN LA ORGANIZACIÓN
Partida honek orain behin behineko aurrekontuan duen partidaren baino 7.119 euro gehiago behar ditu.

b) 1 224.01.912.00.0311 2018 SEGUROS. ORGANOS GOBIERNO
Partida honek orain behin behineko aurrekontuan duen partidaren baino 13.883euro gehiago behar ditu.

Nola zuzendu egoera:

Arazo hau konpondu daiteke, aurrekontua behin betikoa izaera edukitzean. Memento horretatik, hurrengo Osoko Bilkuran erabaki behar da zein partidatik lortuko den finantzazioa **kreditu aldaketa egiteko, eta aipatutako partidei, kreditua eman ahal izateko.**

3. MAJORIKO INBERTSIOAK.


Behin behineko aurrekontuan horrela dago jasota:

2018an:

1 733.02.341.00.0161 2018	APORTACION INVERSIONES. MAJORI 1ª FASE	172.000,00
---------------------------	---	------------

Kredito konpromisoa:

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAA4Q4C3>



2019				2020			
GASTUA	KONTZEP	ZENBAT.	FINANTZ	GASTUA	KONTZEP	ZENBAT.	FINANTZ
57330234100 0161	Aportac.Majori 1ª fase	664.000	MAILEGUA	57330234100 161	Aportac.Majori 1ª fase	664.000	MAILEGUA

Guztira onartuko den kreditua: 172.000+664.000+664.000=1.500.000€

Bi arazo ikusten ditut:

- 1) Zenbatekoa: Guztira lizitatu nahi den kopurua: 2.365.000 eurokoa da eta ez 1.500.000 eurokoa (Onartu dena)
- 2) Txosten ekonomiko finantzarioa: Txostena ezin da egin 2019an bat eta 2020an beste bat gastu araua edo egonkortasuna betetzen ez direlako. Aplikagarria den arauak dio 2019an onartu beharko genukela bat eta bete beharko dela 2021a arte. Tartean ezin da beste Txosten ekonomikorik onartu.(eta beraz ezin dira proiektu handiak egin kreditu edo mailegu berriak eskatuz)

Beraz txosten ekonomiko bakarra egin ahal izateko beharrezkoa litzateke finantzazio gehien Kreditu (eta ez mailegua) batekin 2018an lortzea, horrela Diputazioaren baimena lor dezakegu eta dirua eskatu beharrezkoa denean.

Esan nahi dudana hurrengo partidetan jarri ditut.

a) 2018an:

-Gastua 2018: 1 733.02.341.00.0161 2018 “Aportación inversiones Majori 1ª fase ” 1.772.000€

-Sarrerak 2018:

a) Mailegua:

2 933.01.011.00.0200 2018	Préstamo a largo plazo	1.672.000
---------------------------	------------------------	-----------

Maileguaren kopuruari gehitu behar zaio orain arte amortizatzen den kopurua+ -500.000

- b) Foru Aldundiko kapitalezko diru-laguntza 100.000

b) 2019an:

-Gastua 2019: 5 73302.341.00.0161 2019 “Aportación inversiones majori 1a fasea”

..... 398.224€

-Sarrerak 2019:

2019ko Gerakina (Majoiko Bezaren itzulketa).... 224.000€

Gipuzkoako Foru Aldundiko diru-laguntza..... 100.000€

Eusko Jaurlaritzako diru-laguntza..... 74.000€

c) 2020an:


- Gastua 2020: 5 73302.341.00.0161 2020 “Aportación inversiones Majori 1a fase”

..... 195.000€

- Sarrerak 2020: Gipuzkoako Foru Aldundiko diru-laguntza..... 195.000€

Nola zuzendu egoera:

Arazo hau konpondu daiteke, aurrekontua behin betikoa izaera edukitzean. Memento horretatik hasita, hurrengo Osoko Bilkuran erabaki behar da kreditu aldaketa egitea nik azalzu dudana egoera lortu ahal izateko. Kreditu aldaketa hori Jendaurrean 15 lanegun egon beharko da, eta pasatzen direnean, orduan, esleitu daiteke 2.365.000 euroko obra.



Onartu beharreko kreditu aldaketa honako hau izan beharko litzateke:

2018ko partidak:

Gastua handitzea: “1 73302.341.00.0161 2018 “Aportación inversiones Majori 1a fase” +1.600.000€

Sarrerak handitzea: “2 933.01.011.00.0200 2018” Epe luzerako maileguak: +1.600.000€

2019ko eta 2020ko partidak: 2019rako eta 2020rako Majorirako dauden konpromiso kredituak eta finantzazioa bertan behera utzi eta goian proposatuak jarri.

Ordizian 2018ko ekainaren 26an. Mikel Zubizarreta.- Ordiziako Kontu-hartzailea

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Kontu-hartzaile jaunak txostenaren helburua eta hainbat punturen gaineko informazioa azaltzen du.

Jakinazten du hurrengo osoko bilkuran, aurrekontuaren hasierako onarpenari alegazioak aurkezteko epea bukatu ostean, eta erabaki hori behin betikoa bilakatu ostean, onartutako aurrekontua aldatu eta egokitu egin beharko dela.

Beharbada, hurrengo uztailaren 5ean, ezohiko osoko bilkurarako deia egingo da aldaketa horiek onartzeko xedez.

Ezenarro jaunak esan du aurreko osoko bilkuran (eta horrela jasota dagoela aktan) bere taldeak prestutasuna agertu zuela aurrekontua koadratzeko behar diren arlo teknikoak egokitzeko eta prestutasun berdinarekin jarraitzen dutela.

Osoko Bilkura jakinaren gainean dago.



Jarraian, Lehendakari jaunak hurrengo puntuaren berri eman du.


5.- Udal barruan EUSKARALDIA sustatzeko Erakunde-adierazpena.

Proposamena

Gipuzkoan bi hizkuntza ditugu ofizialak: euskara eta gaztelania. Begi bistakoa da, ordea, bi hizkuntzok ez daudela oreka egoera batean, ez esparru publikoan ez eta gizartean ere: gaztelania da nagusi. Uste dugu orain arteko ahaleginarekin bakarrik ez direla bi hizkuntzak parekatuko, indar gehiago jarri behar dugula hizkuntza-berdintasuna bultzatzeko; euskara lehenetsi behar dugula, alegia. Izan ere, gizarte-, genero- eta hizkuntza-berdintasuna lortzea da Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako udalen erronketako bat, eta, horrenbestez, horretara bideratutako urratsak egitea.

UNESCOrentzat ere munduko hizkuntza-ondarea zaintzea eta hizkuntza gutxituak garatu ahal izatea da mende honek duen erronkarik garrantzitsuenetako bat. Izan ere, 7.000 hizkuntza inguruk osatzen dute munduko hizkuntza-ondarea. Munduko biztanleen % 97k hizkuntzen % 4 hitz egiten du ama-hizkuntza gisa, eta biztanleen % 3k hitz egiten du hizkuntzen gainerako % 96a. Horrela, bada, hizkuntza gutxi batzuk dira nagusi munduan, hizkuntza txiki eta gutxitu askorekin elkarbizitzan.

Gipuzkoan 100 hizkuntzatik gora hitz egiten dira eta ikasi beharko dugu aniztasun hori egoki kudeatzen; baina bizikidetzat osasuntsu baterako lehen urratsa euskara eta gaztelaniaren arteko elkarbizitza orekatua lortzea da.



Norabide horretan, euskara biziberritzeko beharrezkoa dugu norbanakoen, gizartearen eta administrazioen arteko ahaleginak uztartu eta elkar elikatzen jarraitzea -Eusko Jaurlaritzaren *Eta Hemendik Aurrera Zer* txostenak ere halaxe jasotzen du-, eta, era berean, premiazkoztat jotzen dugu hizkuntza gutxituen aldeko hizkuntza-arau sozial berriei ere lekua egitea.

Guztion elkarlanari esker, euskararen normalizazio-prozesuak ibilbide oparoa izan du azken hamarkadetan, emaitza aipagarria da, baina, prozesu guztiek bezala, argi-itzalak ditu; bada pozik egoteko arrazoirik, baita kezkatzeko daturik ere.

2016. urtean egindako VI. Inkesta Soziolinguistikokoaren arabera, ezagutza-datuek nabarmen egin dute gora azken hamarraldietan, baina erabilera ez da neurri berean hazi; Gipuzkoan bizi den 2 urte edo gehiagoko biztanleriaren % 57,4 euskalduna da eta biztanleen % 73,3k euskara ulertzen du. Erabilera-datuek diotenez, aldiz, Gipuzkoan 16 urtetik gorakoek % 39,5ek hitz egiten du euskaraz.

Datuon argitan, euskararen normalizazio-prozesua inflexio-puntuari dago, fase baten amaieran eta beste baten atarian. Aro berri horretan, agerikoa da erabileran jarri beharra dagoela indarra.

Euskararen ulermenari ez diogu behar besteko garrantzirik eman; izan ere, erabileraren korapiloa askatzeko gako nagusi bat ulermena da. Alegia, euskararen ulermenaren balioa azpimarratuz gero, ulermena erabat zabalduz gero, euskararentzat eta gipuzkoarrantzat erabilerarako eremu zabal eta emankorra zabalduko dugu. Kontuan hartzeko beste datu bat: Gipuzkoako udalerrri gehienetan ulermena % 80tik gorakoa da, eta gainerakoetan biztanleen % 60k baino gehiagok ulertzen du euskara.

Euskaraldia, 11 egun euskaraz, azaroaren 23tik abenduaren 3ra

Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Topaguneak, beste hainbat eta hainbat eragilerekin elkarlanean, abian jarri dute Euskaraldia ekimena. Gure udalerrria ere buru-belarri sartu da, eta ekinbidea burutzeko batzordeak lanean dihardu.

Ekimen horretan 11 egunetan hizkuntza-praktika berri bat gauzatzera gonbidatuko ditugu herritarrek. Ariketa horren subjektuak 16 urtetik gorako helduak izango gara, eta 11 egunez hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa kolektibo bat egitea da proposamena, indarra ulermenean jarrita. Bi subjektu-mota bereizi dira: *ahobizi* eta *belarriprest*.

Ahobiziek, 11 egun horietan, euskarari eutsiko diote solaskideak euskaraz ulertzen duen guztietan, eta, belarriprestek, aldiz, solaskideak beraiekin euskaraz aritzera gonbidatuko dituzte, nahiz eta belarriprestak berak euskaraz edo gaztelaniaz erantzun.


Ekimenaren helburua hau da, besteak beste: ariketa praktikoa horren bidez ikusaraztea eta biziartzea hizkuntza-ohiturak alda ditzakegula, eta, ahal dela, 11 egun horiek igaro eta gero, hizkuntza-praktika berri horiei eustea.

Euskaraldia Gipuzkoako Foru Aldundian eta udaletan

EAEko euskararen erabilera normalizatzeko V. Plangintzaldiak honako datu hauek jasotzen ditu amaierako ebaluazio-txostenean:

- Gipuzkoako ordezkari politikoen % 90,4 gai da euskara ulertzeko eta % 86,8 euskaraz hitz egiteko.
- Gipuzkoako langile publikoen % 86,8k ongi edo oso ongi hitz egiten du euskaraz.

Aipatutako datuak eta Gipuzkoako egoera soziolinguistikoa aintzat hartuta, erabileran eragiteko baldintza egokiak ditugu Gipuzkoan. Euskaraldia, osterara, abagune aproposa dugu Gipuzkoako erakunde publikoak eta arduradun politikokoak dagokigun erantzukizuna geure gain hartu eta eredugarritasunez joka dezagun, erabileran urrats berriak egin ditzagun.



Horregatik guztiagatik, honako hau aurkezten dugu:

ERAKUNDE ADIERAZPENA

Ordiziako Udalak honakoa adierazi nahi du:

- Udaltzak bat egiten du Euskaraldiarekin eta ekimenaren sustatzaile izango da. Horrenbestez, erantzukizunez eta eredugarritasunez jokatzeko konpromisoa hartzen du.
- Ordezkeri politikoon egiteko nagusia izango da Euskaraldiaren markoan eta bereziki udal barrura begira ekimena zabaltzea. Horrenbestez, ekimen honetan ahalik eta *ahobizi* eta *belarriprest* gehien aktibatzekeko urratsak egingo ditugu, arduradun politikoak zein langileak izan.
- Ahobiziotik euskara ulertzen duten guztiarekin euskaraz aritzeko konpromisoa hartzen dugu.
- Belarriprestok gainerakoak gonbidatuko ditugu gurekin euskaraz egin dezaten, nahiz eta guk euskaraz edo gaztelaniaz erantzun.
- Udalak neurriak hartuko ditu hizkuntza-praktika horiek posible egiteko eta etorkizunean eutsi ahal izateko.
- Udalak, ekimenaren sustatzaile gisa, udal barruan ez ezik, udalerrian ere herritarrak gonbidatuko ditu Euskaraldia ekimenean parte har dezaten, eta izena emateko bideak erraztuko ditu.
- Udalak bat egiten du ekimena elkarrekin, elkarlanean eta batera garatzearekin Gipuzkoan, ahalik eta udal eta mankomunitate gehienetan, Gipuzkoako Foru Aldundian eta Batzar Nagusietan, lurralde mailako politika bateratu bati begira.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Iturrioz jaunak mozioaren xedapenean dauden puntuak irakurtzen ditu.

Maiza andereak esan du hau hainbat udaletzek onartutako esparru-proposamen bat dela. Galdetzen du ia irizpideak ezarri diren eta adierazpen honetan agertzen diren neurriak Ordiziarako nola egokituko diren planifikatu den ala ez.

Gaineratzen du, herritarrez gain, alderdi garrantzitsu bat dagoela eta hori udaletxe barruko lana dela eta nahi diren helburuak lortu ahal izateko, beharrezkoak diren neurri guztietan, udaletxeak lidergoa hartu behar duela.

Intsausti andereak puntua mahai gainean uztea proposatzen du eta HITZARO ELKARTEArekin bilera bat egitea mozioa, jarduketa-plan zehatz batekin, onartzeko.


Maiza andereak uste du plan hori diseinatzeko epe bat jar daitekeela.

Uste du gaurko osoko bilkuran erakunde-adierazpena onartu eta irizpideak lantzeko konpromisoa hartu daitekeela Ordizian ezartzeko.

Bozketa

Aldeko botoak:13 (EAJ 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAA4Q4C3>



Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0



Jarraian, Lehendakari jaunak hurrengo puntuaren berri eman du.

Jarraian, Sukia andereak gai-zerrendako 6. eta 7. puntuen hurrenkera aldatzeko eskatzen du, hortaz, 7. puntua 6. puntua izatera pasatuko litzateke eta azken hori 7. puntua izatera. Arrazoa da entzuleen artean BDS eta Palestinari babesa emateko mugimenduko ordezkaria dagoela.

Osoko Bilkurak adostasuna erakusten du.

6.- Palestinako herriak Gazako zerrendan jasandako sarraskiaren aurrean, Ordizia Orainek aurkeztutako mozioa.

Ordiziako Udalbatzarrari:

Propolsrael AEBk bere enbaxada Jerusalemara eraman izana eta Eurovisionen bere ordezkariak irabazi izana ospatzen ari den honetan, Israelen armadak -legez existitzen ez den muga bat defendatzen ari dela aitzakia hartuta- beste behin ere Palestinako herritarrak sarraskitu zituen, aire zabaleko espetxea den Gazako zerrendan. Frankotiratzailleek, **Gazako zerrendaren** barruan, armarik gabe zeuden pertsoneri egindako tiroen zehaztasuna, punteria, ospatzen zuten. Pertsona horiek Itzulera Martxa Handian manifestatzen ari ziren, kanporatuak izan ziren haien etxeetara eta lurretara itzultzeko eskubidea bete zedin eskatuz; halaxe erabaki baitzuen NBEren batzar nagusiko 194. ebazpenak. Manifestazio horretan berean Gazaren blokeo legez gizagabea, ankerra, altxatzea eskatzen zuten.


Eraso berri horrek lehendik Gaza pairatzen ari zen hondamendi humanitarioa nabarmen okertzea dakar: osasun-sistema kolapsatua du, kutsadura larria da, ez dute, ia, energia elektrikoa eta ura, eta elikagaiak urriak dira. Hori guztia lurrez, itsasoz eta airez 11 urtetan egindako blokeoaren ondorioa da. Horiez gain, Gazako azpiegiturak eta etxebizitzak suntsituak izan dira Israelen aurreko erasoetan. Esan beharra dago ezinezkoa gertatzen dela berreraikitzeari heltzea. **NBEko ordezkariak aitortu du Gaza bertan bizitzeko egokia ez den lurraldea dela.**

Martxoaren 30az geroztik, Israelgo armadak armaturik ez zeuden 130 pertsona baino gehiago erail ditu; horietatik 16 adingabeak ziren, bat desgaitua eta bat sanitarioa.

Zauritutako 13.000 pertsonetatik, 7.000 balaz zaurituak izan dira, eta 5.500 gas negar-eragileek kaltetu dituzte (zortzi hilabeteko haurraren heriotza eragin duten gasak). 2.000 baino gehiago adin txikikoak dira, 175 kazetariak eta 220 sanitarioak. Zaurituetako 32k, debekaturik dauden bala leherkorren ondorioz eta horien ondorioei aurre egiteko dagoen bitarteko gabeziaren ondorioz, anputazioak izan dituzte. Beste 50 klinikoki hilda daude. 37 anbulantzia kaltetu dituzte. Maiatzaren 20an armadako itsasontzien tiro egin zieten, beste behin, arrantzaleei.

Sarraskiak ziklikoak dira Gazan, eta hala ere, nazioarteak, orain arte, ez du inolako neurririk hartu Israelgo Estatuaren aurka. Txostenak eta begien bistakoak gorabehera, ez da gerrako krimeneko eta gizateriaren aurkako krimeneko israeldar arduradunik prozesatua izan. Ez dira gertakari isolatuak; Israelgo historialari Ulan Peapke-k definitzen duenaren arabera, Israelek Palestinako biztanleriaren aurka daraman genozidio progresiboaren parte dira. Israel, sortu zen unetik beretik, okupazio kolonial basatia burutzen ari da, asmoa izanik al bait lurralderik gehien lortzea, horietan al bait palestinar gutxien egonik.

Gazan ikusi ditugunak, eta geroztik biktima gehiago eragin dituzten bonbardaketak eta artilleria-suak, Israelek Nazioarteko Zuzenbidea larriki urratzea esan nahi dute, ondorioz izan daitezkeen gerra-krimenak tarteko. Horregatik, NBEko giza eskubideen kontseiluak batzorde bat sortzea onartu zuen,



Ordiziako Udala

2018IOSB0006

Israelgo armadak Gazan hildako palestinarren heriotzak ikertzeko. Horrez gain, Israelgo gobernuari eskatu zion amai dezan lurralde palestinarren okupazioarekin, **eta epaituak izan daitezten armagabetutako manifestarien aurka tiro egin zuten horiek.**

Israelek, ordea, salaketa guztiei entzungor egiten die, salaketa horiek sekula ez dutelako beraiekin zigorrik. Espainiako Gobernuak Israelgo enbaxadoreari deitu ere ez dio egin Gazako sarraskiari buruz galdetzeko. Israelgo Gobernuak, ordea, Espainiak Tel Aviv-en duen enbaxadoreari deitu dio azalpenak eman ditzan Espainiak zergatik eman duen NBE-n batzorde bat sortzearen aldeko botoa.

EBk, Espainiako Estatuak eta Eusko Jaurlaritzak badituzte bitartekoak Israel aldeko harremanetan presionatzeko. Borondate politikoa falta dute neurriak aplikatzeko eta Israelekin ez kolaboratzeko; horren lekuko dugu berriki Bizkaiko Aldundiak SOSA-rekin hitzartutako akordioa, azken hori estuki loturik Israelgo armadarekin.

Espainiako Estatuak armak erosi eta saltzen dizkio Israeli. Israelgo materiala eta teknologia erosteak ("borrokan probatuak"; alegia, palestinarren aurka erabiliak) **Israelen ekintza kriminalaren konplize bihurtzen gaitu**, eta haien aholkularitzak berarekin dakar **giza eskubideen urraketan garatutako eta oinarritutako prozedurak eta doktrinak inportatzea eta gure gizarteetan aplikatzea**, gure zuzenbide-estatua bera hondatuz.

Amnistia Internazional erakundeak berriki dei egin die, beste behin, **mundu osoko gobernuari arma-enbargo integral bat ezar diezaioten Israeli** Itzulera Martxa Handiaren barruan izan diren manifestazio jendetsuen aurka erabilitako gehiegizko errepresioari erantzunez.

RESCOP erakundeak (Palestinari laguntzeko elkarten sarea) firma-bilketa bat egiteko deia zabaldu du, eskatuz:

Enbargo militarra ezartzea berehala, defentsarako armak edo materiala gerra-krimenak edo gizateriaren aurkako krimenak egiteko erabiliak izateko arrisku handia dagoelako; **hilketa eta lesio larri horiei buruzko ikerketa formal bat irekitzea**, gerra krimenak izan baitaitezke, egileak epaileen esku geratuko direla bermatuz; **Israeli zigorrak ezartzea**, Nazio Batuen Erakunde mailan, giza eskubideen aurkako krimenengatik; Espainiako enbaxadorea **Tel Avivetik ateratzea eta Israelgo Estatuarekiko harreman diplomatikoak etetea.** (boicotisrael.net/embargomilitar/).

Argi dugu bi herrien arteko bake, oparotasun eta segurtasuneko etorkizuna egongo bada, horrek nahitaez justizian oinarritutako soluzioa eskatzen duela. Argi dugu, halaber, estatu okupatzailearen gaineko presio eraginkor indartsu batek soilik behartu dezakeela Israel nazioarteko zuzenbidea errespetatzera.


Ordiziako osoko bilkurari ondorengo **akordioak** hartzea proposatzen diogu:

1.- Itzulera Martxa Handian armarik gabe zeuden eta parte hartzen ari ziren pertsonen artean izan diren 130 erailketa baino gehiago eta 13.000 zauritu baino gehiago gaitzestea, eta horien familiei doluminak eta elkartasuna adieraztea.

2.- Espainiako gobernuari premiatzea Israelekin duen arma-merkataritzari enbargo osoa urgentziaz ezar diezaioten, halaxe eskatzen baitu Amnistia Internazional erakundeak.

3.- Euskal erakunde publiko guztiak premiatzea eraso berri hori sala dezaten, eta Israelekin dituzten harreman eta akordio guztiak bertan behera uztera, harik eta giza eskubideak urratzei utzi arte eta nazioarteko legalitatea bete arte.

4.- EB premiatzea presio-neurri guztiak, zigorrak barne, aplikatzea, GAZAren gaineko legez kanpoko blokeoari amaiera eman diezaioten berehala.



5.- Europar Batasunari eta Espainiako Gobernu Zentralari eskatzea EBk eta Israelek indarrean duten elkartzeko akordioa bertan behera uztea, elkartzeko akordio horretako bigarren artikulua urratzeagatik (giza eskubideei dagokiona).

6.- Nazioarteari eskatzea neurriak har ditzala Israel behartzeko biktimei kalte-ordainak eman diezazkien, eragindako kalteak konpon ditzan, eta egin dituen gerra krimenengatik nazioarteko auzitegietan erantzun dezan.

7.- Nazioarteko boikot, desinbertsio eta zigor kanpainari (DBS) babesa ematea. Herritarrak animatzea Israelgo Estatu sionistak palestinarren aurka darabilen indarkeria salatzeako antolatuko diren ekitaldi eta mobilizazio guztietan parte hartzera, eta BDS bultzatzera, giza eskubideen eta nazioarteko legalitatearen defentsan.

8.- Akordio hauek Espainiako Gobernuko presidenteari eta lehendakariari, Kanpo Gaietarako Ministroari, Israelgo enbaxadoreari, Palestinako enbaxadari eta Eusko Legebiltzarreko eta diputatuen kongresuko talde parlamentari guztiei helaraztea.

9.- UNRAW, Palestinako errefuxiatuentzako NBE-ren agentzia, funtsik gabe geratu da AEB-k ez duelako egin dagokion ekarpena. Eskatzen dugu, “zentzugabekeria” hau arintzeko, Espainiako Gobernuari premiazko eskea egiteko Nazio Batuen Erakundeari egiten dion ekarpena handitu dezan eta Agentzia horrekin Estrategiarako Elkarte-marko bat ezar dezan.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Sukia anderea: Mari Carmen Martí-ri, BDS eta Palestinari babesa emateko mugimenduko ordezkaria denari, ematen dio hitza.


Martí anderea: Mozioaren arrazoia azaltzen du eta honen aurkezpena justifikatu du. Ondoren, mozioaren bukaeran beste puntu bat eranstea eskatu du eta honela jasota geratu da mozioa:

Ordiziako Udalbatzarrari:

Propolsrael AEBk bere enbaxada Jerusalemara eraman izana eta Eurovisionen bere ordezkariak irabazi izana ospatzen ari den honetan, Israelen armadak -legez existitzen ez den muga bat defendatzen ari dela aitzakia hartuta- beste behin ere Palestinako herritarrak sarraskitu zituen, aire zabaleko espetxea den Gazako zerrendan. Frankotiratzaileek, **Gazako zerrendaren** barruan, armarik gabe zeuden pertsonen egindako tiroen zehaztasuna, punteria, ospatzen zuten. Pertsona horiek Itzulera Martxa Handian manifestatzen ari ziren, kanporatuak izan ziren haien etxeetara eta lurretara itzultzeko eskubidea bete zedin eskatuz; halaxe erabaki baitzuen NBEren batzar nagusiko 194. ebazpenak. Manifestazio horretan berean Gazaren blokeo legez gizagabea, ankerra, altzatzea eskatzen zuten.

Eraso berri horrek lehendik Gaza pairatzen ari zen hondamendi humanitarioa nabarmen okertzea dakar: osasun-sistema kolapsatua du, kutsadura larria da, ez dute, ia, energia elektrikoa eta ura, eta elikagaiak urriak dira. Hori guztia lurrez, itsasoz eta airez 11 urtetan egindako blokeoaren ondorioa da. Horiez gain, Gazako azpiegiturak eta etxebizitzak suntsituak izan dira Israelen aurreko erasoetan. Esan beharra dago ezinezkoa gertatzen dela berreraikitzeari heltzea. **NBEko ordezkariak aitortu du Gaza bertan bizitzeko egokia ez den lurraldea dela.**

Martxoaren 30az geroztik, Israelgo armadak armaturik ez zeuden 130 pertsona baino gehiago erail ditu; horietatik 16 adingabeak ziren, bat desgaitua eta bat sanitarioa.



Zauritutako 13.000 pertsonetatik, 7.000 balaz zaurituak izan dira, eta 5.500 gas negar-eragileek kaltetu dituzte (zortzi hilabeteko haurraren heriotza eragin duten gasak). 2.000 baino gehiago adin txikikoak dira, 175 kazetariak eta 220 sanitarioak. Zaurituetako 32k, debekaturik dauden bala leherkorren ondorioz eta horien ondorioei aurre egiteko dagoen bitarteko gabeziaren ondorioz, anputazioak izan dituzte. Beste 50 klinikoki hilda daude. 37 ambulanzia kaltetu dituzte. Maiatzaren 20an armadako itsasontzien tiro egin zieten, beste behin, arrantzaleei.

Sarraskiak ziklikoak dira Gazan, eta hala ere, nazioarteak, orain arte, ez du inolako neurririk hartu Israelgo Estatuaren aurka. Txostenak eta begien bistakoak gorabehera, ez da gerrako krimeneko eta gizateriaren aurkako krimeneko israeldar arduradunik prozesatua izan. Ez dira gertakari isolatuak; Israelgo historialari Ulan Peappe-k definitzen duenaren arabera, Israelek Palestinako biztanleriaren aurka daraman genozidio progresiboaren parte dira. Israel, sortu zen unetik beretik, okupazio kolonial basatia burutzen ari da, asmoa izanik al bait lurralderik gehien lortzea, horietan al bait palestinar gutxien egonik.

Gazan ikusi ditugunak, eta geroztik biktima gehiago eragin dituzten bonbardaketak eta artilleria-suak, Israelek Nazioarteko Zuzenbidea larriki urratzea esan nahi dute, ondorioz izan daitezkeen gerra-krimenak tarteko. Horregatik, NBEko giza eskubideen kontseiluak batzorde bat sortzea onartu zuen, Israelgo armadak Gazan hildako palestinarren heriotzak ikertzeko. Horrez gain, Israelgo gobernuari eskatu zion amai dezan lurralde palestinarren okupazioarekin, **eta epaituak izan daitezten armagabetutako manifestarien aurka tiro egin zuten horiek.**

Israelek, ordea, salaketa guztiei entzungor egiten die, salaketa horiek sekula ez dutelako beraiekin zigorrik. Espainiako Gobernuak Israelgo enbaxadoreari deitu ere ez dio egin Gazako sarraskiari buruz galdetzeko. Israelgo Gobernuak, ordea, Espainiak Tel Aviv-en duen enbaxadoreari deitu dio azalpenak eman ditzan Espainiak zergatik eman duen NBEn batzorde bat sortzearen aldeko botoa.


EBk, Espainiako Estatuak eta Eusko Jaurlaritzak badituzte bitartekoak Israel alde biko harremanetan presionatzeko. Borondate politikoa falta dute neurriak aplikatzeko eta Israelekin ez kolaboratzeko; horren lekuko dugu berriki Bizkaiko Aldundiak SOSAren hitzartutako akordioa, azken hori estuki loturik Israelgo armadarekin.

Espainiako Estatuak armak erosi eta saltzen dizkio Israeli. Israelgo materiala eta teknologia erosteak ("borrokan probatuak"; alegia, palestinarren aurka erabiliak) **Israelen ekintza kriminalaren konplize bihurtzen gaitu**, eta haien aholkularitzak berarekin dakar **giza eskubideen urraketan garatutako eta oinarritutako prozedurak eta doktrinak inportatzea eta gure gizarteetan aplikatzea**, gure zuzenbide-estatua bera hondatuz.

Amnistia Internazional erakundeak berriki dei egin die, beste behin, **mundu osoko gobernuetara arma-enbargo integral bat ezar diezaioten Israeli** Itzulera Martxa Handiaren barruan izan diren manifestazio jendetsuen aurka erabilitako gehiegizko errepresioari erantzunez.

RESCOP erakundeak (Palestinari laguntzeko elkarten sarea) firma-bilketa bat egiteko deia zabaldu du, eskatuz:

Enbargo militarra ezartzea berehala, defentsarako armak edo materiala gerra-krimenak edo gizateriaren aurkako krimenak egiteko erabiliak izateko arrisku handia dagoelako; **hilketa eta lesio larri horiek buruzko ikerketa formal bat irekitzea**, gerra krimenak izan baitaitezke, egileak epaileen esku geratuko direla bermatuz; **Israeli zigorrak ezartzea**, Nazio Batuen Erakunde mailan, giza eskubideen aurkako krimenengatik; Espainiako enbaxadorea **Tel Avivetik ateratzea eta Israelgo Estatuarekiko harreman diplomatikoak etetea.** (boicotisrael.net/embargomilitar/).



Ordiziako Udala

2018IOSB0006

Argi dugu bi herrien arteko bake, oparotasun eta segurtasuneko etorkizuna egongo bada, horrek nahitaez justizian oinarritutako soluzioa eskatzen duela. Argi dugu, halaber, estatu okupatzailearen gaineko presio eraginkor indartsu batek soilik behartu dezakeela Israel nazioarteko zuzenbidea errespetatzera.

Ordiziako osoko bilkurari ondorengo **akordioak** hartzea proposatzen diogu:

- 1.- Itzulera Martxa Handian armarik gabe zeuden eta parte hartzen ari ziren pertsonen artean izan diren 130 erailketa baino gehiago eta 13.000 zauritu baino gehiago gaitzestea, eta horien familiei doluminak eta elkartasuna adieraztea.**
- 2.- Espainiako gobernuaren premiatzea Israelekin duen arma-merkataritzari enbargo osoa urgentziaz ezar diezaion, halaxe eskatzen baitu Amnistia Internazional erakundeak.**
- 3.- Euskal erakunde publiko guztiak premiatzea eraso berri hori sala dezaten, eta Israelekin dituzten harreman eta akordio guztiak bertan behera uztera, harik eta giza eskubideak urratzeari utzi arte eta nazioarteko legalitatea bete arte.**
- 4.- EB premiatzea presio-neurri guztiak, zigorrak barne, aplikatu diezazkion, GAZAren gaineko legez kanpoko blokeoari amaiera eman diezaion berehala.**
- 5.- Europar Batasunari eta Espainiako Gobernu Zentralari eskatzea EBk eta Israelek indarrean duten elkartzeko akordioa bertan behera uztea, elkartzeko akordio horretako bigarren artikulua urratzeagatik (giza eskubideei dagokiona).**
- 6.- Nazioarteari eskatzea neurriak har ditzala Israel behartzeko biktimei kalte-ordainak eman diezazkien, eragindako kalteak konpon ditzan, eta egin dituen gerra krimenengatik nazioarteko auzitegietan erantzun dezan.**
- 7.- Nazioarteko boikot, desinbertsio eta zigor kanpainari (DBS) babesa ematea. Herritarrak animatzea Israelgo Estatu sionistak palestinarren aurka darabilen indarkeria salatzen antolatuko diren ekitaldi eta mobilizazio guztietan parte hartzera, eta BDS bultzatzera, giza eskubideen eta nazioarteko legalitatearen defentsan.**
- 8.- Akordio hauek Espainiako Gobernuaren presidenteari eta lehendakariari, Kanpo Gaietarako Ministroari, Israelgo enbaxadoreari, Palestinako enbaxadari eta Eusko Legebiltzarreko eta diputatuen kongresuko talde parlamentari guztiei helaraztea.**
- 9.- UNRAW, Palestinako errefuxiatuentzako NBE-ren agentzia, funtsik gabe geratu da AEB-k ez duelako egin dagokion ekarpena. Eskatzen dugu, "zentsuragabekeria" hau arintzeko, Espainiako Gobernuari premiako eskea egiteko Nazio Batuen Erakundeari egiten dion ekarpena handitu dezan eta Agentzia horrekin Estrategiarako Elkarte-marko bat ezar dezan.**


Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0



Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena aho batez onartutzat eman du.



7.- Ekainaren 28ko Erakunde-adierazpena Askatasun Sexualari buruzkoa.

Proposamena

EKAINAREN 28ko ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Pertsona guztiak duintasunean eta eskubideetan libre eta berdin jaiotzen dira. Hitz hauek ageri dira Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren lehen artikuluan eta tokiko udalen oinarriko lana gidatzen du, gure udalerrietan bizi diren pertsona guztien eskubideen babesaren eta defentsaren bermatzaile garen heinean.

49 urte igaro dira *Stonewalleko* erreboltaz geroztik. 1969ko ekainaren 27tik 28rako gauean New Yorkeko polizia *Stonewall* izeneko pub batean sartu zen transexual, lesbiana, gay eta bisexualak atxilotzeko. Euren eskubideak defendatzeko elkartzen ziren lehen aldia ez bazen ere, data hori mugarri bihurtu zen diskriminazio eta ikusezintasun testuinguru batean: lehen aldiz LGTBI+ pertsonak, euren sexualitatea eta generoa modu askean bizitzeko eskubidea defendatuz aurre egin baitzieten poliziaari, eta eskubideen aldeko defentsaren borrokan katalizatzaile bat izan zen.

Orduz geroztik ekainaren 28a, LGTBI+ (lesbiana, gay, transexual, bisexual, intersexual, queer...) komunitatearen harrotasun eguna da, eskubideak aldarrikatzeko nazioarteko eguna, errespetua eta bizikidetzaren aniztasunaren ikuspegitik aldarrikatzekoa. Gaur gaurkoz erabat indarrean dagoen aldarrikapena, jendartearen gaiarekiko kontzientziazioa geroz eta handiagoa bada ere, era berean eta zoritxarrez, datuek baieztatzen dutelako diskriminazioa sexu joera eta identitateagatik, edota genero adierazpenagatik, gorroto mezuen artean nagusia dela.

Alabaina, ez dugu ahaztu behar bidegabeko errealitate diskriminatzaile hori askoz handiagoa dela pertsona askorentzat euren genero, arraza, jatorria, egoera administratiboa eta/edo sozioekonomikoa eta abar direla medio. Azken finean, egoera sozioekonomiko erosoaren duen mendebaldeko gizon zuriaren ikuspegia LGTBI+ komunitatearen errealitatean ere gailentzen delako, ospatzen ari garen 1969ko ekainaren 28 hartan benetan gertatu zena itxuragabetzeraino.

Izan ere, hainbeste urteren ondoren ia ahaztu dugu:

Harrotasuna emakume bati esker ospatzen dela.

Harrotasuna emakume beltz bati esker ospatzen dela.

Harrotasuna emakume beltz trans bati esker ospatzen dela.


Harrotasuna sexu langilea zen emakume beltz trans bati esker ospatzen dela.

Harrotasuna sexu langilea zen emakume beltz trans bisexual bati esker ospatzen dela, polizia bati adreilu bat bota ziolako.

Harrotasuna sexu langilea zen emakume beltz trans bisexual bati esker ospatzen dela, polizia bati adreilu bat botatzean estatuaren kontrako matxinada hasi zuelako.

Bere izena Marsha P. Johnson zen eta ahaztea edukirik gabeko harrotasun bat aldarrikatzera garamatza.

Gure eguneroko bizitzan salagarriak diren gertaerak gertatzen dira oraindik, non LGTBI+ pertsonak mota guztietako diskriminazioak jasaten dituzten, askotan indarkeria barne: sexu-orientazioagatik eta/edo genero identitateagatik gorroto-delituak, heterosexualitatea arau gisa inposatzen dela agerian uzten duten hainbat diskriminazio eta eraso, trans kolektiboaren patologizazioa, trans diren haur eta nerabeentzako arretoa egokirik eza, eta abar.



Homofobiaren kontrako eguna aldarrikatu berri dugun honetan, kolektiboak nazioarte-eremuan aurre egin behar dion egoera zaila nabarmendu nahi dugu. Ez dugu ahaztu behar LGBTI+fobia gehien hedatuta dagoen gorroto-moduetako bat dela eta 70 herrialdetako baino gehiagotako zigor-kodeetan instituzionalizatuta dagoela eta zigor-kode horietan genero-orientazio, -identitate eta -adierazpen desberdinen arau errepresoreak biltzen direla. Hori guztia ahaztu gabe herrialdeek gaur egun ere aurreikusten dutela LGTBI+ kolektiboari heriotza-zigorra aplikatzeko aukera, baita kolektibo horrek herrialde askotan aurre egin behar dien gorroto-krimen kontaezinak ere. Urrun dagoen zerbait dela ematen duen arren, kontua da, gure ingurunean gero eta gehiago ikusten den errealitatea dela; izan ere, egoera dramatiko horrek eragindako asilo-eskaerak izugarri ari dira igotzen azkenaldi honetan.

Era berean, agendak, ospakizunek, ekitaldiek eta gainerakoek, horrelako errealitateak gure gizartean gero eta toki gehiago duela gogorarazten digu. Gipuzkoan asko eta asko dira egun hau ospatzen duten herriak, modu honetan, gainera, heteroarauak ezarritako eredutik kanpo agertzen diren sexualitate motak hierarkizatu eta baztertzen duen identitate sexualak ezarritako aurreiritzietatik, edozeinek eremu horretan askatasunez bizitzeko duen eskubidea agerian jarritz. Ildo honetatik aipa daiteke aldarrikatu berri dela, apirilaren 26an, hamargarren urtez, Ikusgaitasun Lesbikoaren Nazioarteko Eguna eta honek argi uzten du, oraindik ere asko dagoela egiteke.

Oraindik ere hori gertatzen ari da gure gizartean, eta gure betebeharra da LGTBI+ pertsonen aurkako diskriminazio mota oro ezabatzeko lan egitea. Araudiari eta ekintza espezifikoak martxan jartzeari dagokienez aurrerapausoak eman diren arren, oraindik lan asko egin behar da LGTBI+ pertsonen euren eskubide guztiez egun guztietan goza dezaten defendatzeko eta sexualitatea eta generoa bizitzeko modu eta adierazpen guztien normalizaziorantz beharrezko gizarte-aldaketa gauzatzeko.


Egoera honen aurrean, bere gertutasunagatik Udala da herritarren beharrak neurtzeko lehen termometroa, eta horregatik ezinbestekoak dira, herritarren bizikidetzaren babesteko eta edozein dela ere beren arraza, sexua, adina, jatorria eta sexu orientazioa, pertsonak ez diskriminatzea zaintzeko. Toki-administrazioak egitura garrantzitsuenetakoak dira eskubideak eta askatasunak bermatu eta ongizate estatuari egiten dioten ekarpena bultzatzeko. Horregatik gure betebeharra da LGTBI+ pertsonenganako edozein motatako diskriminazioa desagerrarazteko lan egitea, kolektiboari ikusgarritasuna emateko lan egitea, aurreiritzi edo estereotipoen gainetik formazioaren bitartez pedagogia egitea eta beharrezkoak diren baliabideak jartzea, Ordizia aniztasunaren errespetuan oinarrituko den berdintasuneko leku justuago batean bilakatzeko.

Egun honetan ezin dugu ahaztu Euskal Herrian mugimendu LGTBI+ eta feminista osatzen duten pertsona guztien borrokaren aldarrikapena, izan ere, eguneroko zereginean, eta diskriminazio mota oro ezabatzeko lan eginez, gizarte benetan bidezkoa, berdinezalea eta feminista eraikitzeke funtsezko ekarpena egiten baitute. Euren borrokari laguntzeko gure konpromiso politikoak egunerokoa izan behar du, ez soilik adierazpenak eginez, baizik eta gizarte-ordezkariekin adostutako ekintzak martxan jartzeko giza-baliabideak, baliabide teknikoak eta ekonomikoak konprometitz, betiere ikuspegi feminista eta eraikitzailearekin.

Funtsezko giza eskubideez, norberaren identitatea definitzeko eta identitate hori askatasunez bizitzeko eskubideaz ari gara.

Horregatik, Ordiziako Udaletik:

Edozein eraso mota gaitzesten dugu, indarkeria fisikoz egindakoa baina baita hitzezkoa ere, LGTBI+ pertsonak mesprexatu eta iraintzea, eta Udal bezala gure udalerrian modu batera edo bestera euren sexualitatea edo genero identitateagatik erasotuz, gutxietsiak edo diskriminatuz izan diren pertsonenikiko solidaritatea agertzen dugu. Era berean, benetako berdintasun eraginkor baten aurka doazen ekintza sozial eta politikoak arbuizaten ditugu.



Giza eskubideekin dugun konpromisoa berresten dugu, eta ondorioz, baita aniztasun sexualaren, genero identitatearen eta orientazio sexualaren arabera pertsonak ez diskriminatzearekin ere. Egin diren aurrerapausoak aitortzen baditugu ere, egun oraindik dauden barrerak gainditzeko gure erabakia berresten dugu.

Aniztasun sexualaren aldeko eta orientazio sexualaren edo genero identitatearen arabera pertsonak ez diskriminatzen politiketan apustu egiteko beharra adierazten dugu, arreta, informazioa, formazioa, sentsibilizazioa eta kontzientziak landuko duten programa eta proiektuak garatuz, gure herriak aniztasun sexualaren adierazpen guztientzat gune seguruak bilaka daitezela.

Ordiziako Udaleko langileen eta Ordiziako herritarren informazio eta sentsibilizazioa bultzatzen jarraitzea konprometitzen gara.

Eskubideen berdintasunagatik eta genero identitatearen edo orientazio sexualaren arabera pertsonak ez diskriminatzen lan egiteko konpromisoa hartzen dugu, erakunde eredu bat izan gaitzen, eta horretarako diskriminazio egoera horiei aurre egiteko behar diren ekintzak bultzatu eta bideratu.

Gure politikan sexu-aniztasuneko eta genero-identitateko ikuspegia sartzeko konpromisoa hartzen dugu, eta zehazki:

Herritar guztiei zuzendutako sentsibilizazio eta kontzientziak kanpainak bultzatzea, hezkuntza feministako programak martxan jarri eta bultzatuz, diskriminazioaren prebentziorako, eta askatasunean egindako praktika sexu-afektibo eta identitate ez heteroarautzaileak garatzeko, horretarako beharrezko baliabideak bermatuz.

Diskriminazioa jasaten duten LGTBI+ pertsona guztiei, eta bereziki beren sexu, arraza, jatorri, egoera administratibo eta abarregatik ahultasun handiagoko egoeran dauden pertsonen soziaz, psikologikoki, juridikoki eta ekonomikoki laguntzeko beharrezko baliabide guztiak ematera.

EAEan LGTBI+ pertsonen eskubideen defentsa osoa eta araudiaren garapen egokirako beharrezko baliabide guztiak bermatuko dituen araudi espezifiko bat martxan jartzeko eskaera egitera.

LGTBI+ adineko pertsonen arreta egokirako zerbitzuak sustatzea.


Gure eskumenen esparruan, beste leku batzuetatik iristen diren eta beren sexu orientazioaren eta/edo genero-identitatearen ondorioz jazarpena jasaten dutela adierazten duten pertsona guztientzako arreta osoa eskaintzea.

Mugimendu LGTBI+ eta feministekin etengabeko komunikazio- eta lankidetzak kanalak irekitzea eta mantentzea, eta ekimen bateratuak martxan jartzeko baliabideak erraztea. Era berean, aurreko ekintza horiek guztiak mugimendu horiekin kontrastatzeko konpromisoa hartzea.

Eta bereziki, harrotasunaren egunaren ospakizunaren inguruan burutuko diren ekintzen inguruan, konpromisoa hartzen dugu:

Udaletxeko leku ikusgarrian, balkoian, sexu askapenerako ortzadar bandera zintzilikatzea eta kale Nagusitik Foruen pasealekura doan zebra-bidea, Zabala jauregia, ortzadar koloreekin berriro margotzea.

LGTBIQ Kolektiboa identifikatzen duten taldearen sinboloak agerian jartzeko gero eta espazio gehiago jartzera, horretarako herriko paisaiarekin bat egin eta aldarrikapena urte osoko ekintza izan dadin.



Ordiziako plazan kontzentrazioako deialdia egitera, 2018ko ekainaren 28an, 12:00etan, eta Udaletik Ordiziako herritarrei kontzentrazioan ez ezik, LGTBI+ eta mugimendu feministatik antolatzen diren ekainaren 28ko aldarrikapen ekintzetan parte hartzeko deialdia zabaltzea.

Ordizian, 2018ko ekainaren 28an

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jaunak esan du udaletxeko hainbat alderdi politikok testu ezberdinak aurkeztu dituztela eta horiek kontuan hartuta, testu bakar bat adostea lortu dela eta hori bera dela osoko bilkuran eztabaidatu eta bozkatuko dena.

Ezenarro jaunak mozioaren atal esanguratsuenak irakurtzen ditu.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vasco-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena aho batez onartutzat eman du.



Jarraian, Lehendakari jaunak hurrengo puntuaren berri eman du.

8.- “GARBIGUNE” 32 sail berria sortzeari eta “Suhiltzaileen Parkea” HIE 27ari buruzko Planeamenduko Arau Subsidiarioen Aldaketa puntualaren behin betiko onarpena.


Proposamena

José M^a Aseguinolazak egindako eta Udaletxe honek sustatutako txostenaren arabera, udal Planeamenduko Arau Subsidiarioetan Elementuen aldaketa puntualak egiteko bideratutako espedientearen berri ematen da, hau da, “Garbigune” Hirigintza-jarduerarako Eremu berria sortzeko eta Suhiltzaileen Parkea-27 Hirigintza-jarduerarako Eremua aldatzeko.

Hasierako onarpenari dagokionez, 2016ko ekainaren 20ko data duen txosten teknikoak eskatutako aldaketak eta egokitzapenak egin ostean, 2017ko azaroan txostena aurkeztu eta, 2017ko azaroaren 30ean egindako Osoko Bilkuran, behin-behinean onartu zen. Espedientea EAELABera bidali zen, txosten loteslea eta aginduzkoa egin zezan.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen Gipuzkoako Plangintzaren Sekzioak, otsailaren 21ean egindako 1/2018 zenbakidun bileran, Euskadiko Lurzoru eta Hirigintza 2/2006 Legearen 91. artikuluan aurreikusitako txostena igorri zuen. Txosten horrek ez zuen eragozpenik jartzen Udaletxe honek bidalitako espedienteari.

2018ko ekainaren 12ko data duen udal arkitektoaren aldeko txostena eta 2018ko ekainaren 13ko Hiri-garapen Delegaritzaren irizpena ikusita, Plenorako Gaien Batzordeak 2018ko ekainaren 20an egindako bileran hau proposatzea erabaki du:



AKORDIO PROIEKTUA:

“Garbigune” Eremu berria sortzeari eta Suhiltzaileen Parkea-27 HIEari buruzko Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioetan aldaketa puntualak egiteko txostena behin betiko onestea.

2.- Behin betiko onespena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta lurralde historikoan zabalpen handienetarikoa duen egunkariren batean argitaratzea.

3.- Txostenaren kopia Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea Plangintzako Erregistroan gorde dezaten; halaber, beste kopia bat Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeari bidaltzea.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jaunak azaltzen du espedientearen behar diren izapideak egin eta gero, azken urratsa dela osoko bilkurak dokumentua behin betiko onartzea.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vasco-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena aho batez onartutzat eman du.



Jarraian, Lehendakari jaunak hurrengo puntuaren berri eman du.

9.- “San José” adinekoen egoitza zerbitzuari atxikitako lurrak eta eraikina Gipuzkoako aldundiari dohainik lagatzea.


Propuesta

2018ko maiatzaren 3ko ohiko bilkuran, Udaleko osoko bilkurak hasiera batean onartu zuen adinekoen egoitza-zerbitzua emateko den San Jose Egoitzari atxikitako ondasunen udal inbentarioan ageri diren lurrak eta eraikina desafektatzeko espedientea.

Espedientearen jendaurrean jarrita egon den epean ez du erreklamaziorik edo alegaziorik jaso; hortaz, herri-jabariko ondasunen desafektazioa behin betiko bihurtu da.

Gipuzkoako Foru Aldundiak sinatutako hitzarmenaren xedea gauzatu ahal izateko, hau da azken horri zerbitzua emateko eskumena eskualdatzea, ezinbestekoa da zerbitzuari atxikitako ondasunak dohainik lagatzea; ondasun horiei, aurrez, herri-jabari izaera desafektatu zaie.

Toki Erakundearen Ondasunei buruzko Araubideko 109. artikulua arabera, ondare-ondasunak dohainik laga ahal izango zaizkie herri-erakunde edo instituzioei udalerriko herritarren onurarako izango diren xedeetarako. Laga ahal izango zaizkie, halaber, irabazi asmorik gabeko interes publikoko instituzio pribatuei ere.



Ordiziako Udala

2018IOSB0006

Lagapen hori Foru Aldundiak baimendu beharko du lagatakoaren balioak urteko aurrekontuaren baliabide arrunten ehuneko 25 gainditzeko badu. Nolanahi ere, besterentzen den edozein ondasunen berri eman beharko da.

Ondasunak dohainik lagako badira, nahitaezkoa izango da udalbatzako kide-kopuru legalaren erabateko gehiengoaren adostasuna, aurrez Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Araubideko 110. artikulua eskatzen dituen betekizunak jasotzen dituen espedientearen izapideak bideratuta. Espediente horretan jaso beharko dira, besteak beste, erakunde lagatzailearen izaera publikoa justifikatzen duen memoria, eta lagapen horren xedeak udalerriko biztanleen onurarako izango direla argi eta garbi eta positiboki.

Espedientean dago aipatu artikulua eskatzen duen dokumentazioa.

2018ko ekainaren 20ko osoko bilkurarako gaiak aztertzen dituen batzordearen aldeko irizpenarekin, proposatu da onartzea honako

AKORDIORAKO PROIEKTUA

LEHENA.- Ordiziako Udalarenak diren eta San Jose zaharren egoitza-zerbitzuari atxikita dauden lurzattia eta eraikina Gipuzkoako Foru Aldundiari dohainik lagatzea. Aipatu egoitza Ordiziako Egutera Bideko 7.ean dago kokaturik, eta Tolosako Jabetza Erregistroko 2.313 Liburukian, Ordiziako 187 Liburua, 11. Folia, 9.331 Lurzatian inskribaturik dago.

BIGARRENA.- Lagako denaren balioak aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 25 gainditzeko ez duenez, horren berri ematen zaio Gipuzkoako Foru Aldundiari jakinaren ganean egon dadin, eta Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Araubideko 109. artikuluan xedatutakoa betez.

HIRUGARRENA.- Lagapen-espedientea jendaurrean jartzea 15 eguneko epean GAO-n, udaletxeko iragarki-taulan eta udalaren web-orrialdean, herritarrek espedientea aztertu eta egoki irizitako alegazioak eta iradokizunak egin ditzaten.

LAUGARRENA.- Jendaurrean egongo den epe horretan alegaziorik edo iradokizunik egiten ez bazaio, aipatu lagapena behin betikotzat joko da, bestelako akordiorik hartu beharrik izan gabe.

BOSGARRENA.- Ordiziako alkate Jose Miguel Santamaria Ezeiza ahalduntzea udalaren izenean eta hori ordezkatzuz lagapen-eskritura publikoa eta hori formalizatzeko beharrezkoak diren gainerako dokumentuak izenpe ditzan.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:


Alkate jaunak azaltzen du izenpetutako hitzarmenaren arabera, zaharren egoitzako zerbitzua emateko eskumena Foru Aldundiari eskualdatzeko, zerbitzuari atxikitako lurren eta eraikinen doako lagapena egin behar dela.

Toki Erakundeen Ondasunen araudiaren 110. artikulua eskatutako dokumentazioa espedientean dago.

Sukia andereak, eskumenaren eskualdaketa egiteko espedienteari dagokionez, jakinarazten du dagoeneko aurreko osoko bilkura batean esan zuela lursailtako batzuk egoitzari laga zitzaizkiola helburu zehatz batzuetarako. Horregatik, udaletxeko jabetzakoak diren banandutako lursailak eta Aldundiari zerbitzua emateko laga ez zaizkionak, lagatuak izan ziren asmoetarako zuzendu daitezkeen eskatzen du.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:



Aldeko botoak:13(EAJ-PNV 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vasco-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena aho batez onartutzat eman du.



Jarraian, Lehendakari jaunak hurrengo puntuaren berri eman du.

10.- Kudeaketa materialaren ardurari buruzko hitzarmena, Ordiziakoko udalaren eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren artekoa.

Propuesta

Urriaren 1eko Sektore publikoko Erregimen Juridikoaren 40/2015 Legeak Udaletxeei hitzarmen hauek izenpetzeko ahalmena ematen die: administrazio-organoetako eskumeneoak diren izaera material edo teknikoko ekintzak egiteko, kudeaketaren ardura beste bati emateko hitzarmenak.

Hori ikusita, Ordiziako Udaletxearen eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren arteko hitzarmena izenpetzea proposatzen da, Udaltzaingoko Oinarrizko Eskalako Agente kategorian sartzeko hautaketa prozesu bateratuen kudeaketa materiala Akademiaren esku uzteko.

Aplikatu beharreko araudia hau da:

- Apirilaren 7ko Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 17,1,4. artikulua.
- Urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubidearen 40/2015 Legearen 11. artikulua.
- Azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 legearen 6. artikulua.

Azaldutakoaren arabera eta 2018ko ekainaren 20an egin zen Osoko Bilkurarako Gaien Batzordearen aldeko irizpenarekin, hau onartzea proposatzen da:

AKORDIO PROPOSAMENA

Lehena.- Ordiziako Udalaren eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren arteko hitzarmenaren izenpetzea onartzea. Eransten den testuaren arabera, Udaltzaingoko Oinarrizko Eskalako Agenteen bi lanpostu betetzeko Udaletxearen eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren arteko kudeaketa materialaren ardura Akademiari emateko.

Bigarrena.- Ordiziako Alkateari hitzarmena sinatzeko baimena eman.

Hirugarrena.- Onartu den akordioa Polizia eta Larrialdietarako Euskal Akademia igorri akordioa.


Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jaunak kudeaketaren helburua eta hitzarmenaren izenpetzea azaltzen du.

Ezenarro jaunak Idazkariari hitzarmenaren inguruko hainbat galdera egiten dizkio.

Idazkari andereak erantzun dio.



Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vasco-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena aho batez onartutzat eman du.



Jarraian, Lehendakari jaunak hurrengo puntuaren berri eman du.

11.- Kontratazio-mahai iraunkorraren eraketa.

Proposamena

Azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 326. artikulua arabera, kontratazio organoek, nahitaez, kontratazio-mahai batez lagunduta egon beharko dute prozedura hauetan: prozedura irekietan, ireki erraztuetan, murriztuetan, lehia-elkarrizketakoetan, negoziatu bidezko litzazioetan eta sorkuntzarako elkarten prozeduretan; eta nahi izanez gero, baita gainontzeko prozeduretan ere.

Kontratazio-mahaiak, laguntza teknikoko organo berezitu bezala, azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 326.2. artikuluan ezartzen diren funtzioak izango ditu.

Mahaiaren osaketari dagokionez, aintzat hartu behar dira azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 326. artikulua eta bigarren xedapen gehigarria. Azken horrek toki entitateek kontratazio arloan dituzten eskumenei egiten die erreferentzia. Bigarren xedapen gehigarria arau espezifiko da eta beraz, kontraesanik balego, nagusituko litzateke araudi orokorraren aurrean.

Azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 326.4. artikuluari jarraiki, kontratazio organoak kontratazio-mahai kideak izendatuko ditu. Legearen bigarren xedapen gehigarria kontuan hartuta, Udaletan kontratazio organoa Alkatea edo Udalbatzarra izango da, kontratu motaren eta kopuruaren arabera. Alabaina, kontratazio mahai laguntza tekniko berezitua emango duen organoa izanik eta bere osaketaren gardentasuna eta publikotasuna bermatzeko, Udaleko Idazkaritza Saitetik hau proposatzen da: kontratazio-mahai iraunkorraren osaketa Udalbatzarrak adostea, mahai hori behar den kontratazio guztietan jardungo du.

Horrela, eta 2018ko ekainaren 20an egindako Osoko Bilkurarako Gaien Batzordearen aldeko irizpenarekin, hau onartzea proposatzen da:

AKORDIO PROPOSAMENA


Lehenengoa.- Kontratazio-mahai iraunkorra kide hauekin eratzea:

Bigarrena.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko Kontratatzailearen profilean mahaiaren osaketa argitaratzea.

- Lehendakaria: Alkatea edo bere ordezkaria.

- Mahaikideak:

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAA4Q4C3>



- a) Udaletxeko Idazkaria
- b) Udaletxeko kontu-hartzailea
- c) Administrazio Orokorreko Teknikaria

- Idazkaria: Idazkaritzako administraria

Hirugarrena: Udaleko Kontratazio-mahai iraunkorraren osaketaren onarpena Kontratatzailearen profileen eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jaunak jakinarazten du kontratuen lizitazioetarako eta esleipenetarako izaera iraunkorra edukiko duen kontratazio-mahai bat eratzea dela.

Sukia andereak mahai horretan ordezkari politikorik ez egoteko eskatzen du (nahiz eta legeak baimendu).

Ezenarro jaunak galdetzen du ia mahai iraunkor bat eratzea derrigorrezkoa den.

Idazkari andereak ezetz erantzuten dio, izaera iraunkorreko mahai bat eratzea ez dela derrigorrezkoa, baina bai eraginkorra.

Sukia andereak puntua mahai gainean uzteko eskatu du.

Puntua berriz aztertzeko, **mahai gainean uzteko bozketa** egin da .

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Sozialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Gaia mahai gainean geratzen da




Jarraian, Lehendakari jaunak hurrengo puntuaren berri eman du.

12.- Bide publikoan ibiak arautzen dituen ordenantzaren hasierako onarpena.

Proposamena

Bide publikoan ibiak arautuko dituen Ordenantza berri bat onesteko espedienteari hasiera eman zaiola jakinarazten da.

Toki Entitateen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 d) artikulua zehazten denaren arabera, Udalari dagokio ordenantzak onartzea.



Ordiziako Udala

2018IOSB0006

Aipatutako Legearen 49 artikulua zehazten denaren arabera, araudi eta ordenantzak honako prozedura jarraitu beharko dute:

- a) Osoko bilkuraren hasierako onarpena
- b) Jendaurreko informazioa eta interesatuei erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko hogeita hamar eguneko gutxieneko epea ematea.
- c) Epe horretan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizunen ebazpena eta osoko bilkuraren behin betiko onarpena.

Horrez gain, lege-proiektu edo araudia egin aurretik, 2018ko ekainaren 8an, Udaletxeko web orrian argitaratu da izapidea betetzeko espedientearen hasiera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 legearen 133. artikulua ezartzen duen bezala.

Horretarako eman den epean ez da ez iradokizunik, ez oharririk, ez alegaziorik aurkeztu.

2018ko ekainaren 20ko Osoko Bilkurako Gaiaren Batzordearen aldeko irizpenarekin, honakoa onartzea proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

1.- Bide Publikoan Ibiak arautzen dituen Ordenantzari hasierako onarpena ematea (dagokion testua erantsita dago).

2.- Ordenantza jendaurrera zabaltzea iragarki taulan, Gipuzkoako aldizkari Ofizialean eta Web orrialdean iragarki bidez 30 eguneko apean, interesatuei erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko aukera emateko, eta Udalak ebatziko ditu iradokizun hauek.

3.- Erreklamaziorik ez balego, akordio berririk gabe Ordenantzak behin betiko onartuko dira.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Fernández andereak esan du lehenengo aldia dela gaia arautzen dena.

Azaltzen du ordenantzaren testua alderdi politikoei bidali zitzaiela ekarpenak egiteko.

Sukia andereak ekarpen bat egin du: eraikin berrietako sustatzaileei, aldapa duten sarreretan, oinezkoak abisatuko dituen sentsore bat instalatu dezaten eskatzea.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:


Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vasco-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena aho batez onartutzat eman du.





Jarraian, Alkate jaunak presazko bidetik sartutako hurrengo puntuaren berri ematen du. O.Orainek errefuxiatuei buruz aurkeztutako mozioa.

Lehenik eta behin, aurkeztutako puntuaren presazko izaera bozkatu da.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Soto andereak proposamena irakurtzen du.

13.- ORDIZIA-ORAIN EK ERREFUXIATUEI BURUZ AURKEZTUTAKO MOZIOA.

Mozio hau gertakari hauek oinarri hartuta aurkezten da:

TESTUINGURUA:

Saharaz hegoaldeko 46 etorkin, horietako gehienak Mali eta Gineakoak eta horietako bi adingabeak, Almeriako Gurutze Gorriaren bitartez, Almeriatik Donostiako geltokira autobusez bidali dituzte. Esan zitzaizen Donostiako gizarte zerbitzuek (Aldundia) edo Euskadiko Gurutze Gorriak artatuko zituztela, baina erakunde horiek horren inguruko berririk ez daukatela esan dute. Azkenean, Gurutze Gorriak artatu zituen larrialdiko aterpe batean eta bertan pasa zuten gaua. Polizia iturriek jakinarazi dute, beharbada Espainiara aurreko astean pateraz heldu direla eta haien helmuga Frantzia izango litzatekeela.

Gainera, antzeko gertaerak jazo berri dira. Bilbora autobus bat heldu da 32 pertsonekin, Donostiako egoera berdina errepikatuz. Beraz, jarraian azalduko ditugun argumentu guztiak berresten dira.

BERRIA


Saharaz hegoaldeko berrogeita hamar etorkin Donostiako geltokian abandonatu dituzte.

<https://www.eitb.eus/es/noticias/sociedaa7detalle/5673228/cruz-roja-atiende-medio-centenar-inmigrantes-llegados-autobus-donostia/>

JUSTIFIKAZIOA

Gertakari horien gainean, PODEMOS-AHAL DUGU EUSKADIK, Ordiziako zirkulutik, beste behin ere adierazten du atzerritartasun legea aldatzea premiazkoa dela. Lege bidegabe bat herritarrak kategoriatan sailkatzen dituen eta jendearen ehuneko bat eskubide barik bizitzera kondenatzen duena, arau bezala, salbuespen erregimen bat ezarri. Milaka dira Atzerritarrak Barneratzeko Zentroetan sartzen dituzten pertsonak eta egoera hori bidegabekotzat jotzen dugu; izan ere, gogoratu nahi dugu migratzea EZ DELA DELITU BAT, GIZA ESKUBIDE BAT DELA, pertsona guztion berezko eskubidea, eta inor ez litzateke espetxean egon behar horregatik.

Agerikoa da erreskatatutako pertsona guztiek asko sufritu dutela eta gure betebeharra haiek babestea dela. Ez da burokraziarik, ez aitzakiarik bilatu behar pertsona hauei berriz ere, etorkizuna kentzeko. Nazioarteko babesa merezi dute eta espero dugu horrela haien egoera konpontzea. Gainera, "Aquarius"-eko migratzaileen egoera modu berean erregularizatzea ere espero dugu.



Ordiziako Udala

2018IOSB0006

Kezkatuta gaude eta uste dugu guztiok arduratu behar garela mobilizazioetan ikusten ari den (Valentziakoa, kasu) xenofobiaren eta arrazismoaren gorakadari heltzeaz. Pedagogia asko, lan handia eta elkarbizitzarako apustu politikoa behar da. Horren aurrean, Podemos-Ahal dugu Euskadi bezala, eskua luzatu egiten dugu eta espero dugu gainontzekoek honi merezi duen tokia egitea, pertsonen lekualdaketen ginean erabilera politikorik egin gabe.

Horregatik guztiagatik, eta Ordiziako zirkuluko Podemos-Ahal Duguk eskatuta, Ordizia Orain alderdi politikoak, aurrekoa kontuan hartuta, MOZIOA aurkezten du eta proposatzen du **Ordiziako Udaletxeko Osoko Bilkurak hau eskatu dezan:**

1. Estatuko Gobernuari, gaur egun, Estatuan harrerarako dauden plaza kopurua handitzea, bai errefuxiatuentzat, bai migratzaileentzat. Atzerritartasun Legearen erabateko aldaketa, hemen adierazten den argudioari dagokion terminoen arabera, eta behar bezala artikulatua izango den eremu eskudunean.

2. Eusko Jaurlaritzari hausnarketa prozesu bateratu bat sustatu dezan, Euskadiko instituzio maila guztietan ematen diren migrazio politikak estrategiaz eta koherentziaz hornitzeko. Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu orokorrean errefuxiatuei laguntzeko ezarritako funtsa erabil dezala, migratzaileei, errefuxiatuei eta Euskadin joan-etorrian dauden pertsoneri egiturazko babesa eskaintzeko.

3. Foru Aldundiei, euren eskumenen arabera, zerbitzu berezitu bezala, abian jar dezatela: migratzaile eta errefuxiatuei, berezitutako entitateen eskaerei erantzungo dieten programa osagarriekin harrera egitea, hala nola, lehenengo harrerako aterpea egitea, etxebizitzarako eskubidea bezalako eskubideak benetan izatea, gainontzeko eskubideak garatu ahal izateko ezinbestekoak.

4. Udaletxeko Osoko Bilkurari sentsibilizaziorako eta elkarbizitzarako programak aktibatu eta egin ditzala. Horretaz gain, auzora etorri berriei kalitatezko harrera emateko, abian jar ditzala herrietan bizikidetzarako behar diren pertsona baliabideak, baliabide ekonomikoak, materialak, teknikoak eta juridikoak.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: Bat ere ez.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vasco-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0


Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena aho batez onartutzat eman du.



13.- Galderak eta eskaerak.

Ezenarro jaunak Bozeramaileen Batzordearen bitartez egin daitekeen adierazpen bat proposatzen du, non "manada" izenez ezagunak diren kideak aske uzteko erabakia salatuko den.

Alkate jaunak egingo dela erantzuten dio.



Ordiziako Udala

2018IOSB0006

Sukia andereak eskatzen du plazan musika duen ekitaldiren bat dagoenean muga bat ezartzeko, batez ere, osoko bilkura dagoenean.


Uste du, orokorrean musikaren bolumena mugatu behar dela eta, batez ere, umeak daudenean.



Gai gehiago ez dagoenez, Alkateak Osoko Bilkura amaitutzat eman du, eta batzordearen akta idatzi da, eta nik, behin-behineko idazkariak egiaztatzen dut.

ALKATEA

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA



Ordiziako Udala

2018IOSB0006

En Ordizia siendo el día **28 de junio de 2018** se reúne en el Salón de Sesiones de esta Casa Consistorial el AYUNTAMIENTO PLENO en Sesión Ordinaria con la asistencia de las siguientes personas:

ASISTENTES:

PRESIDENTE:

Dn. José Miguel Santamaría Ezeiza

CONCEJALES PRESENTES:

Joseba Aranburu Ganzarain	EAJ/PNV
Bittor Bolinaga Alzelai	EAJ/PNV
Jose Ignacio Iturrioz Gotor	EAJ/PNV
Arantxa Fernandez Alvaredo	EAJ/PNV
Igor Eguren Izagirre	Ordiziako E.H. Bildu
Belen Maiza Urrestarazu	Ordiziako E.H. Bildu
Adur Ezenarro Agirre	Ordiziako E.H. Bildu
Izaro Intsausti Zinkunegi andrea.	Ordiziako E.H. Bildu
Jon Ander Caballero Zubelzu	Ordiziako E.H. Bildu
Miren Alazne Sukia Galparsoro	Ordizia Orain
M. Jesus Soto De Los Santos	Ordizia Orain
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	Euskal Sozialistak-Socialistas vascos

CONCEJALES AUSENTES:

SECRETARIA:

Dña. Ana Urkizu Kerejeta

INTERVENTOR:


Dn. Mikel Zubizarreta Elicegui

OTRAS INCORPORACIONES Y AUSENCIAS

ORDEN DEL DÍA

ASUNTOS EN EL ORDEN DEL DÍA:

- 1.- Aprobación del Acta del Pleno celebrada el 31 de mayo de 2018.
- 2.- Dación de cuenta de los decretos de alcaldía correspondientes al mes de mayo.
- 3.- Reparos del Interventor sobre contratación correspondiente al mes de junio.
- 4.- Dación de cuenta del informe del interventor sobre aprobación inicial del presupuesto para el 2018.
- 5.- Declaración Institucional para promocionar EUSKARALDIA dentro del municipio.
- 6.- Moción presentada por EH Bildu sobre el día internacional para la liberación sexual de las personas LGTBI+.
- 7.- Moción presentada por Ordizia Orain ante la masacre sufrida por el pueblo palestino en la Franja de Gaza.
- 8.- Aprobación definitiva de la Modificación puntual de las NN.SS de planeamiento referida a la creación del nuevo área 32 "GARBIGUNE" y al A.I.U.27 "Parque de Bomberos"



9.- Cesión gratuita de los terrenos y edificio adscritos al Servicio de Residencia de mayores a la Diputación Foral de Gipuzkoa.

10.- Aprobación del convenio para la Encomienda de Gestión material entre el Ayuntamiento de Ordizia y la Academia Vasca de Policía y Emergencias.

11.- Constitución de la mesa de contratación permanente.

12.- Aprobación inicial de la Ordenanza Reguladora de evados en la Vía Pública.

ASUNTOS TRATADOS POR ORDEN DE URGENCIA:

.- Moción presentada por O.ORAIN sobre las personas refugiadas.

ASUNTOS TRATADOS EN RUEGOS Y PREGUNTAS:

.- Propuesta de redacción de una declaración a través de la Junta de Portavoces, de condena al hecho de la puesta en libertad de los miembros de la llamada "manada".


.- Solicitud de límite de volumen de la música en los eventos en la plaza y en general.

HORARIO

HORA INICIO: 19:00 horas.

HORA FINAL: 20,35 horas.





Abierta la sesión por parte del Presidente, se da lectura al primer punto del orden del día.

1.- Aprobación del acta de la sesión ordinaria de fecha 31 de mayo de 2018

Propuesta

Aprobar el borrador del acta de la sesión ordinaria celebrada el día 31 de mayo de 2018

Debate

Abierto el turno de intervenciones por parte del Sr. Alcalde se producen las que sucintamente a continuación se recogen:

Sr. Ezenarro dice que en la página 66 del acta en versión de euskera en el punto nº 14 “Ruegos y preguntas” no se ha recogido de manera completa su intervención en lo referente a la revista municipal.

Señala que además de lo recogido en acta, dijo que el gobierno municipal pide a los grupos políticos que el número de caracteres no supere los 1.600 pero es el propio gobierno municipal quien incumple ese límite.

Sr. Bolinaga dice que en la página 62 del acta en versión de castellano, señaló, además de lo recogido en acta, que si las enmiendas propuestas por EH-BILDU y O.ORAIN se hubieran trabajado con José Ignacio Iturrioz se hubieran podido aprobar antes los presupuestos.

Se procede por la Secretaria a las correcciones señaladas.

Votación

Realizada la votación ofrece ésta los siguientes resultados:

Votos a favor: 13 (EAJ 5, Ordiziako E.H. Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Votos en contra: 0

Abstención: 0

Declara en consecuencia el Sr. Alcalde aprobada el acta por unanimidad, con las correcciones señaladas.




A continuación por parte del Sr. Alcalde se da cuenta del siguiente punto.

2.- Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía del mes de mayo

Debate

Abierto el turno de intervenciones por parte del Sr. Alcalde se producen las que sucintamente a continuación se recogen:

Sra. Maiza solicita información sobre varios decretos sobre Inspección y control de varios establecimientos hosteleros (bares y pubs).



Sr. Alcalde le responde que se ha dado plazo de un mes para la adecuación a la normativa vigente.

El Ayuntamiento pleno queda enterado.



A continuación por parte del Sr. Alcalde se da cuenta del siguiente punto.


3.- Reparos del Interventor sobre contratación correspondiente al mes de junio

NOTA DE REPAROS DEL INTERVENTOR (06/2018)

Ordizia a 22 de junio de 2018

El Departamento de Secretaría da cuenta al interventor de los siguientes contratos que están fuera de plazo:

Razón social	Objeto del contrato	Contrato	Vto plazo ejecución	Prórrogas	Precio del contrato	Gastado 2017
Gesmunpal	Recaudación ejecutiva	03/11/2003	03/11/2007	---	Variable	48.557,78
